



2009-04-30

GETXO / Wifi konexioa doan izango dute Getxoko sei udal eraikinek

Internetarako kablerik gabeko konexioa izango dute maiatzaren erdialderako Getxo udalerriko sei eraikin publikok. Wifi guneak ondoko udal egoitzetan jarriko dituzte: Algortan, San Nikolas plazako liburutegian, Villamonteko kultur etxean, liburutegian zein erabilera anitzeko aretoetan, eta Fadura kiroldegiko ikasketa gunean; Itzubaltzeta / Romon, Gobela kiroldegian egingo duten liburutegian; Areetan, Andres Isasi Musika Eskolako liburutegian; eta Negurin, udaletxeko batzar aretoan. Udal iturriek zehaztu dutenez, aipatu zerbitzua ez da Itzubaltzetako Santa Eugenia plazako eta Areetako liburutegietan jarriko tokiko erakundeak eraikin horiek zaharberritzea aurreikusita daukalako. Erabiltzaileek dohainik nabigatu ahal izango dute, aurretik pasahitza eskatuz gero. Hori ere, Internet bidez egin ahal izango da. Proiektuaren aurrekontua, berriz, 40.000 eurokoa da. Espainiako Gobernuak onartutako tokiko erakundeei laguntzeko funtsetik aterako dute diru hori. Argazkian, Imanol Landa alkatea ordenagailu eramangarri baten aurrean / Ilanda.eu.Ilanda.info

'Teknologia berrien erabilpena sozializatzea da proiektu honen helburua. Egitasmoarekin Udala Wifi sarea udalerriko toki estrategikoetara hedatzeko oinarriak ipintzen ari da, toki zabaletara zein leku itxietara, herritarren zerbitzuetarako eta zerbitzu korporatiboetarako', azaldu du Imanol Landa alkateak. Izan ere, 'garrantzizkotzat' jotzen dute aipatu egitasmoa aurrera eramatea, 'jakin badakigulako, udalerrian Interneten erabilpen maila oso handia dagoela'. Udal agintariak nabarmendu duenez, 'urrats hori ematea ezinbestekotzat jotzen genuen eta, hasieran, neurri handi batean gazteek bisitatzen dituzten tokietatik hasi gara ipintzen'.